Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

# Arte eta kultura industrien **ENPRESA KONFIANTZA** adierazleak

2016ko bigarren seihilekoko emaitzak eta 2017ko lehen seihilekorako aukerak

2017ko maiatza

# Indicadores de **CONFIANZA EMPRESARIAL** de las Artes e Industrias Culturales

Resultados del segundo semestre del 2016 y perspectivas para el primer semestre del 2017

Mayo de 2017

# Aurkibidea

**Sarrera** ........ **3.**

**Metodologia** ........ **3.**

Kontsulta panela ........ 3.

Denbora-eremua ........ 3.

Datu-bilketa aldia ........ 3.

Adierazleen kalkulua ........ 4.

**Emaitzak** ........ **5.**

Fakturazioaren bilakaera ........ 5.

Egoera ........ 7.

Aurreikuspenak ........ 10.

EKA eta EKAA ........ 13.

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak ........ 16.

Giza baliabideak ........ 18.

# Índice

**Introducción** ........ **3.**

**Metodología** ........ **3.**

Panel de consulta ........ 3.

Ámbito temporal ........ 3.

Período de recogida de datos ........ 3.

Cálculo de indicadores ........ 4.

**Resultados** ........ **5.**

Evolución de la facturación ........ 5.

Situación ........ 7.

Expectativas ........ 10.

ICE e ICEA ........ 13.

Factores limitadores de la actividad ........ 16.

Recursos humanos ........ 18.

## Sarrera

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB-OVC) Arte eta Kultura Industrien sektoreko Enpresa Konfiantza Adierazleen inguruan (EKA) egindako bosgarren estatistikari dagokion txostena da hau. Helburu nagusia, sei hilean behin Arte eta Kultura Industriek negozioaren egungo egoeraz eta epe laburrerako aurreikuspenez dituzten pertzepzioak ezagutzea da. Estatistikaren bosgarren edizio honek Enpresa Konfiantza Adierazleen inguruko aldagaien bilakaera ezagutu eta bilakaera horretan eragiten duten faktoreak zeintzuk diren aztertzea baimenduko du.

Edizio honetan ere, panelaren aurreneko ediziorako osatutako enpresa kolaboratzaileen panel bera kontsultatu da, eta panelaren bitartez jasotako datuekin, kultura sektore ezberdinen egoera eta aurreikuspen adierazleak kalkulatu dira (arte eszenikoak, liburugintza, musika, ikusizko arteak eta ikus-entzunezkoak). Adierazleen kalkulurako metodologia, Estatistikako Institutu Nazionalak enpresa konfiantza neurtzeko erabiltzen duen bera da. Adierazle horiez gain, giza baliabideen inguruko informazioa ere biltzen da: enpresan lan egiten duen pertsona kopurua eta enpresan ardura duten pertsona kopuruaz galdetu zaie; beti ere, emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketa eginez.

## Metodologia

### Kontsulta panela

Panelaren lehen ediziorako osatutako 70 enpresen lagin adierazgarritik abiatu gara; panel hori ondorengo aukeraketa irizpideei jarraiki osatu zen: sektorea eta enpresaren tipologia, fakturazioa eta lurraldea. Guztira lagineko 66 enpresetako informazioa bildu da. Aurreko edizioetan bezala, informazio bilketarako lanak Siadeco enpresak egin ditu.

| Kultura sektorea | Establezimenduak |
|---|---|
| Arte eszenikoak | 12 |
| Ikus-entzunezkoak | 13 |
| Ikusizko arteak | 5 |
| Liburugintza | 17 |
| Musika | 19 |
| **Guztira** | **66** |

### Denbora-eremua

Bosgarren kontsulta honetako adierazleak, 2016ko bigarren seihilekoari eta 2017ko lehen seihilekoari dagozkio.

### Datu-bilketa aldia

Edizio honetako datu-bilketa 2017ko otsailaren 1ean hasi zen eta 2017ko martxoak 15ean amaitu zen.

## Introducción

Este es el informe de la quinta estadística de Indicadores de Confianza Empresarial de las Artes e Industrias Culturales (en adelante, ICE) realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura (KEB-OVC). El objetivo principal de esta estadística es conocer semestralmente las percepciones que los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales tienen en torno a la situación actual del negocio y sobre las expectativas a corto plazo. Esta quinta edición de la estadística nos permite conocer la evolución de los Indicadores de Confianza Empresarial y los factores que inciden en los mismos.

Para esta edición se ha vuelto a consultar al panel de establecimientos colaboradores conformado para la primera edición del panel, y a través de los datos obtenidos mediante ese panel de consulta, se han calculado los indicadores ICE de los diferentes subsectores culturales (artes escénicas, libro, música, artes visuales y audiovisual). La metodología aplicada, corresponde a la que utiliza el Instituto Nacional de Estadística para el cálculo de indicadores de confianza empresarial. Además de esos indicadores también se recopila información relativa al personal que trabaja en los establecimientos: el número de personas que trabaja en la empresa, y el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones, diferenciando entre mujeres y hombres.

## Metodología

### Panel de consulta

Se ha partido de la muestra estratégica de la primera edición del panel compuesta por 70 establecimientos. Dicha muestra se configuró utilizando estos criterios de selección: sector y tipología de empresa, facturación y territorio. En total, se ha recabado información de 66 empresas. Como en las pasadas ediciones, la recogida de datos lo ha desarrollado la empresa Siadeco.

| Sector cultural | Establecimientos |
|---|---|
| Artes escénicas | 12 |
| Audiovisual | 13 |
| Artes visuales | 5 |
| Libro | 17 |
| Música | 19 |
| **Total** | **66** |

### Ámbito temporal

Los indicadores de ésta quinta consulta, corresponden al segundo semestre del 2016 y al primero del 2017.

### Periodo de recogida de datos

La recogida de datos de esta edición empezó el 1 de febrero de 2017 y finalizó el 15 de marzo de 2017.

## Adierazleen kalkulua

### Adierazle bakoitzaren saldoa

Erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea da.

### Egoera balantzea

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Amaitu berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

### Aurreikuspenen balantzea

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Hasi berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

### Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

Negozioaren emaitza ekonomikoaz galdetuta lortutako emaitzetan oinarrituta kalkulatzen dira. EKA egoera saldoa eta aurreikuspenen saldoaren batez besteko geometrikoa da, emaitzak normalizatuta.

EKAtik abiatuta EKAA kalkulatzeko, oinarritzat 2015eko lehen seihilekoa hartzen da.

Kalkuluaren xehetasunak ondorengoak dira:

**Enpresa Konfiantza =**

$= \text{EKA} = \sqrt{(\text{Egoera} + 200) \text{ x } (\text{Aurreikuspenak} + 200)} - 200$

**Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua =**

$= \text{EKAA} = \frac{EKA+200}{\text{EKA1Seihil2015+200}} \text{ x } 100$

### Desestazionalizazioa

Adierazleen kalkulurako ez da desestazionalizaziorako teknika zehatzik aplikatzen, baina galdetegian, erantzunak urte sasoia kontuan hartuta emateko beharrezkoak diren oharrak sartu dira; hau da, negozioaren emaitza ekonomikoaren balorazioa baikorra da, bere jarduera aurreko urteko seihileko berdinarekiko igotzen bada.

## Cálculo de indicadores

### Saldo de cada variable

Se calcula como la diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el porcentaje de respuestas de desfavorables.

### Balance de Situación

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de finalizar.

### Balance de Expectativas

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de comenzar.

### Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

Se construyen a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. El ICE es la media geométrica del saldo de situación y del de expectativas, normalizando adecuadamente los resultados.

Partiendo del ICE el ICEA se calcula cogiendo como período base el primer semestre de 2015.

Los detalles del cálculo son los siguientes:

**Confianza empresarial =**

$= \text{ICE} = \sqrt{(\text{Situación} + 200) \text{ x } (\text{Expectativas} + 200)} - 200$

**Índice de Confianza empresarial armonizado =**

$= \text{ICEA} = \frac{ICE+200}{\text{ICE1Sem2015+200}} \text{ x } 100$

### Desestacionalización

No se aplica ninguna técnica específica de desestacionalización en el cálculo de los indicadores, si bien en el cuestionario se incluye una nota para que se respondan las preguntas considerando la estacionalidad de la actividad del establecimiento; es decir, la valoración del resultado económico del negocio en un semestre es favorable si su actividad aumenta respecto al mismo semestre del año anterior.

## Emaitzak

### Negozioaren fakturazioaren bilakaera

Negozioaren fakturazioaren bilakaerari buruzko kontsultak emaitza positiboak eman ditu, bai aurreko seihilekoarekiko alderaketan, zein aurreko urteko seihileko berarekiko alderaketan.

2016ko bigarren seihilekoan eta aurreko seihilekoarekin alderatuta (2016ko lehen seihilekoa) Arte eta Kultura Industrietako enpresen fakturazioaren bilakaera saldoa 47 puntukoa da. Hau da, beren negozioaren fakturazioa igo egin dela esan duten enpresak fakturazioa jaitsi egin dela esan dutenak baino gehiago izan dira; zehazki, establezimenduen % 61ek fakturazioa aurreko seihilekoarekiko igo egin dela diote eta % 14k jaitsi egin dela. Datuen arabera, eta horien bilakaera aztertuta, badirudi estazionalizazioak zuzenean eragiten duela adierazle honetan, eta bigarren seihilekoko fakturazio datuak lehenengoaren gainetik kokatzen direla, nabarmen.

Eragin hori gainera, bereziki adierazgarriagoa da sektore batzuetan. Honela adibidez, Liburugintzan 77 puntukoa fakturazioaren bilakaera saldoa, eta aipagarria da sektore honetako enpresa guztiek 2016ko bigarren seihilekoko fakturazioa igo egin dela esan izana. Gainontzeko sektore gehienetan ere, datuak hain positiboak ez badira ere, joera berdina atzematen dela esan daiteke. Azpimarratzekoa da gainera, fakturazioaren batez besteko igoerak oso altuak izan direla, sektore guztietako datuak kontuan izanda datu hori % 133ko igoerakoa izanik.

Ikusizko arteen sektorean aldiz fakturazioaren bilakaeraren saldoa negatiboa izan da 2016ko bigarren seihilekoan: saldoa -20 puntukoa da eta batez besteko jaitsiera % 20koa.

Negozioaren fakturazioaren saldoaren bilakaera aurreko seihilekoarekiko - Evolución del saldo de facturación respecto semestre anterior




## Resultados

### Evolución de la facturación del negocio

La consulta sobre la evolución de la facturación del negocio arroja resultados positivos, tanto en la evolución respecto al semestre anterior, como en la evolución respecto al mismo semestre del año anterior.

El saldo de la evolución de la facturación del segundo semestre del 2016 respecto al semestre anterior (primer semestre del 2015) de las empresas de las Artes e Industrias Culturales es de 47 puntos. Es decir, las empresas que han indicado que la facturación del negocio ha aumentado superan a las que han indicado que la facturación ha disminuido; el 61 % de las empresas ha señalado un aumento de la facturación, mientras que el 14 % una disminución. Si se analiza la tendencia evolutiva de los datos de facturación del negocio se observa que la estacionalización incide directamente en los resultados: los datos de facturación del segundo semestre se sitúan claramente por encima de los datos de facturación del primer semestre.

Esta incidencia se acentúa más en ciertos sectores. Así, por ejemplo en el sector del Libro el saldo de evolución de la facturación es de 77 puntos; cabe destacar, que la totalidad de las empresas incluidas en este sector ha indicado que la facturación del segundo semestre del 2016 ha aumentado respecto al semestre anterior. Aunque los datos no sean tan positivos, se mantiene la misma tendencia en los restantes sectores. Destacar además, que los incrementos medios de facturación de los distintos sectores han sido muy elevados, con un aumento medio de 133 %.

El saldo de evolución de la facturación del segundo semestre del 2016 ha obtenido valores negativos en el sector de las Artes visuales, con un saldo de -20 puntos y un porcentaje de disminución medio de 20 %.

**Erreferentzia aldia – Período de referencia: I/2016**

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Igo egin da/Ha aumentado (%) | 50,0 | 69,2 | 20,0 | 76,5 | 57,9 | **60,6** |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 25,0 | 15,4 | 40,0 | 23,5 | 31,6 | **25,8** |
| Jaitsi egin da/Ha disminuido (%) | 25,0 | 15,4 | 40,0 | 0,0 | 10,5 | **13,6** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 25,0 | 53,8 | -20,0 | 76,5 | 47,4 | **47,0** |

**Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: II/2015**

| | Arte eszenikoak /Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batez besteko igoera %/% de aumento medio | 38,1 | 184,7 | 15,0 | 133,3 | 158,2 | **133,2** |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 19,5 | 30,0 | 20,0 | - | 13,5 | **20,7** |

Aurreko urteko seihileko berdinarekiko (2015eko bigarren seihilekoa) negozioaren fakturazioaren bilakaeraren saldoa ere positiboa da: 9,1 puntukoa. Alegia, oro har, aurreko urteko seihileko berarekiko fakturazioa igo egin da 2016ko bigarren seihilekoan. Edizio honetan, aurreko urtearekiko inoizko fakturazio bilakaeraren daturik baikorrenak lortu badira ere, erantzun baikorren eta ezkorren arteko aldea oraindik ere ez da oso handia: enpresen % 39k fakturazioa igo dela esan dute eta % 30ek jaitsi egin dela.

Datuak sektoreka aztertuta, aurreko urtearekiko bilakaera positiboena adierazi duten sektoreak Arte eszenikoak eta Ikus-entzunezkoak izan dira (50 eta 23 punturekin, hurrenez hurren).

Liburugintzan saldoa 0 puntukoa bada ere (fakturazioa igo dela eta jaitsi dela adierazi duten enpresen ehunekoa berdina da), fakturazioaren batez besteko jaitsiera portzentajea altua da: % 138koa. Hau da, fakturazioa jaitsi dela adierazi duten enpresek fakturazio jaitsiera altuak izan dituzte.

Negatiboa da Musika sektoreko enpresek adierazitako bilakaera: 10etik 4 enpresek fakturazioa aurreko urtearekiko jaitsi egin dela adierazi dute (-16 puntuko saldoarekin).

**Negozioaren fakturazioaren saldoaren bilakaera aurreko urtearekiko - Evolución del saldo de facturación respecto año anterior**




También es positivo el saldo de la evolución de facturación respecto al mismo semestre del año anterior (segundo semestre del 2015): de 9,1 puntos. Parece ser que respecto al mismo semestre del año anterior la facturación ha aumentado en las empresas consultadas. Aunque en la presente edición se hayan obtenido los mejores resultados respecto a la evolución de la facturación, la diferencia entre los porcentajes favorables y desfavorables todavía no es muy muy significativo: el 39 % de las empresas afirma que la facturación de su negocio ha aumentado y el 30 % que ha disminuido.

Por sectores, Artes escénicas y Audiovisuales son los sectores que han indicado la evolución más positiva en la facturación respecto al año anterior (con un saldo de 50 y 23 puntos, respectivamente).

En el sector del Libro aunque el saldo de evolución de la facturación es de 0 puntos (el porcentaje de empresas que han indicado un aumento de facturación es igual al porcentaje de los que han indicado un descenso), la disminución media de la facturación respecto al año anterior es elevada: 138 %. Es decir, en las empresas que ha disminuido la facturación, esta disminución ha sido muy acentuada.

La evolución de las empresas del sector de la Música es negativa: 4 de cada 10 empresas han indicado que la facturación de su negocio ha disminuido respecto al año anterior (saldo de -16 puntos).

**Erreferentzia aldia – Período de referencia: II/2015**

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Igo egin da/Ha aumentado (%) | 58,3 | 53,8 | 20,0 | 35,3 | 26,3 | **39,4** |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 25,0 | 7,7 | 60,0 | 23,5 | 26,3 | **24,2** |
| Jaitsi egin da/Ha disminuido (%) | 8,3 | 30,8 | 20,0 | 35,3 | 42,1 | **30,3** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 50,0 | 23,1 | 0,0 | 0,0 | -15,8 | **9,1** |

**Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: II/2015**

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batez besteko igoera %/% de aumento medio | 29,4 | 113,8 | 25,0 | 12,5 | 13,2 | **46,8** |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 50,0 | 29,5 | | 138,4 | 49,4 | **74,7** |

## Egoera: amaitu den seihilekoaren inguruko balorazioa

2016ko bigarren seihilekoko emaitza ekonomikoaren inguruko ikuspegi positiboa gailendu da. Panelaren aurreko bi ediziotan hasitako ikuspegi positiboari jarraikortasuna ematen zaio edizio honetan ere. Hala ere, aurreko edizioarekiko egoera saldoa 3 puntu jaitsi da: 2016ko bigarren seihilekorako 7,7 puntukoa izan da egoera saldoa.

Bilakaera aztertuta, panelaren hasierako ediziotik eman den erantzun baikorren goranzko joera hori mantendu egiten dela esan daiteke. Hala ere, erantzun baikorren igoera orain arteko baxuena izan da, azken ediziotik 0,5 puntuko igoera besterik ez delarik egon.

Arte eszenikoen eta Ikus-entzunezkoen sektorean inoizko egoera saldorik positiboenak lortu dira (50 eta 42 puntuko saldoekin sektore bakoitza, hurrenez hurren): bi kasuetan 10etik ia 6 enpresek egoera positibotzat deskribatu dute.

Egoera saldoak positiboa izaten jarraitzen badu ere, panelaren azken ediziotik erantzun ezkorretan igoera bat eman da: enpresen % 26k egoera ezkorra dela esan zuten aurreko edizioan eta oraingoan % 29 izan dira.

Lortutako saldoak negatiboak izan dira hiru sektoretan: Ikusizko arteak, Musika eta Liburugintza.
Musika eta Ikusizko arteetan egoera balantze negatiboa nagusitu izan bada ere panelaren edizio gehienetan, Liburugintza sektorearentzat lehen aldia da egoera balantzea negatiboa dena.

## Situación: valoración empresarial del semestre saliente

Predomina una visión optimista del entorno económico del segundo semestre del 2016. Sigue la tendencia optimista en relación al saldo de situación iniciada en las dos ediciones anteriores del panel. Pero el saldo de situación ha disminuido en 3 puntos respecto a la edición anterior: el saldo de situación del segundo semestre del 2016 es de 7,7 puntos.

Haciendo un análisis evolutivo de las respuestas, se mantiene la tendencia a subir de las respuestas positivas, pero en la presente edición este incremento ha sido el menor incremento desde el inicio de la estadística: el porcentaje de respuestas favorables a aumentado 0,5 puntos respecto a la pasada edición.

Las empresas de los sectores de las Artes escénicas y de los Audiovisuales han obtenido los saldos más positivos hasta ahora (con 50 puntos y 42 puntos, respectivamente): en ambos sectores 6 de cada 10 empresas han valorado positivamente la situación del semestre saliente.

Aunque el saldo de situación continúa con valores positivos, desde la pasada edición se observa un aumento de las valoraciones negativas: pasando del 26 % de la edición anterior al 29 % de la presente edición.

El saldo de situación obtiene valores negativos en tres sectores: Artes visuales, Música y Libro. Si bien los sectores de las Artes visuales y el Libro han obtenido saldos negativos en casi todas las ediciones del panel, es la primera vez que en el sector del Libro predomina el resultado económico negativo.






**Egoera balantzea – Balance de situación: II/2016**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 58,3 | 58,3 | 20,0 | 29,4 | 21,1 | **36,9** |
| Normala/Normal (%) | 33,3 | 25,0 | 40,0 | 29,4 | 42,1 | **33,8** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 8,3 | 16,7 | 40,0 | 41,2 | 36,8 | **29,2** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 50,0 | 41,7 | -20,0 | -11,8 | -15,8 | **7,7** |
| *Saldoa/Saldo I/2016* | *15,4* | *36,4* | *-60,0* | *22,2* | *0,0* | ***10,6*** |
| *Saldoa/Saldo II/2015* | *-15,4* | *8,3* | *-16,7* | *50,0* | *-21,1* | ***4,4*** |
| *Saldoa /Saldo I/2015* | *7,7* | *0,0* | *20,0* | *11,8* | *-40,0* | ***-6,1*** |
| *Saldoa /Saldo II/2014* | *15,4* | *15,4* | *-33,3* | *11,1* | *-25,0* | ***-1,4*** |

Negozioan eragiten duten aldagai desberdinen bilakaeraren balorazioaz galdetuta, aldagai guztietan balorazio positiboek pisua irabazi dute aurreko edizioarekiko.

Igoera bereziki nabarmena da EAE mailako salmentetan: ia 10etik 6 enpresek salmentak igo egin direla adierazi baitute. Salmenten inguruko inoizko baloraziorik positiboena egin dute kontsultatutako arte eta kultura industrietako enpresek.

Estatuko salmentak jaitsi egin direla diotenen ehunekoak ere jaitsiera jasan du panelaren aurreko ediziotik: zehazki enpresen erdia izatetik, laurdena pasatxo izatera pasa da ehuneko hori.

Arte eta kultura industrietako enpresetako enplegua eta kostuen joera orokorra mantentzekoa bada ere (enpresen % 69k eta % 60k hala adierazi dute), 2016ko lehen seihilekoarekiko enplegua igo egin dela adierazi dutenen ehunekoa igo egin da (%20).

Respecto al semestre anterior, las empresas panelistas han valorado de manera más positiva que en la edición anterior las distintas variables relacionadas con el negocio.

La valoración positiva aumenta considerablemente en las ventas a nivel de la CAV: casi 6 de cada 10 empresas han indicado que ha habido un aumento en las ventas. Es la valoración más positiva realizada hasta ahora por las empresas de artes e industrias culturales.

A su vez disminuye el porcentaje de empresas que han indicado que las ventas a nivel estatal han disminuido: concretamente, el porcentaje pasa de ser casi la mitad de las empresas a ser algo más que una cuarta parte de las empresas.

En cuanto al empleo y los costes sigue predominando el porcentaje de empresas que han indicado que se mantienen estas variables (69 % y 60 % respectivamente), pero aumenta el porcentaje de empresas que han indicado que el empleo ha aumentado en el segundo semestre del 2016.


Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores
EAE-ko salmentak/ Ventas CAV
II/2014 32,9 40,0 27,1
I/2015 30,2 25,4 44,4
II/2015 51,5 32,4 16,2
I/2016 22,6 27,4 50,0
II/2016 57,6 28,8 13,6
Estatu gainerako salmentak/ Ventas al resto del Estado
II/2014 33,3 46,7 20,0
I/2015 10,3 41,0 48,7
II/2015 26,3 34,2 39,5
I/2016 16,7 33,3 50,0
II/2016 32,4 41,2 26,5
Salmentak atzerrian/ Ventas al extranjero
II/2014 35,3 44,1 20,6
I/2015 17,4 47,8 34,8
II/2015 21,1 36,8 42,1
I/2016 26,7 53,3 20,0
II/2016 30,0 55,0 15,0
Enplegua/ Empleo
II/2014 17,1 78,6 4,3
I/2015 7,6 77,3 15,2
II/2015 13,4 80,6 6,0
I/2016 14,5 67,7 17,7
II/2016 20,0 69,1 10,9
Kostuak/ Costes
II/2014 35,7 45,7 18,6
I/2015 18,2 69,7 12,1
II/2015 29,4 66,2 4,4
I/2016 16,1 64,5 19,4
II/2016 31,0 60,3 8,6
0% 20% 40% 60% 80% 100%
Igo egin da/Ha aumentado
Mantendu egin da/Se ha mantenido
Jaitsi egin da/Ha disminuido

## Aurreikuspenak: hasi den seihilekoaren inguruko balorazioa

2017ko lehen seihilekorako aurreikuspenei dagokienean, berriz ere ikuspegi ezkorra baikorrari gailendu zaio. Hemen ere estazionalizazioak edo urte garaiak erantzunean eragina duela ikusten da. Honela, urtearen lehen seihilekoarekiko aurreikuspenak azken seihilekoarekiko aurreikuspenak baino negatiboagoak izan ohi dira, beheko adierazpen grafikoak erakusten duen bezala.

Arte eta kultura industrien enpresa konfiantzaren inguruko panelaren bosgarren edizio honetan datorren seihilekoarekiko aurreikuspen ezkorrenak jaso dira. Beste edizio batzuetan ere aurreikuspen ezkorrak gailendu izan diren arren, aurreikuspen saldorik negatiboena lortu da oraingoan: -12 puntukoa. Aurreikuspen baikorrak dituzten enpresen ehunekoa inoizko baxuena izan da (% 17) eta azken ediziotik asko igo da aurreikuspen ezkorra duten enpresen ehunekoa (% 29).

Ikus-entzunezkoetan eta Ikusizko arteetan kenduta, beste sektoreetan gehiago izan dira datorren seihilekoarekiko ikuspegi negatiboa duten enpresak, bereziki Musikaren sektorean gailentzen delarik egoera hori (-32ko saldoa).

Hala ere, adierazle honen inguruan azpimarratzekoa da kontsultatutako enpresen multzo handi batek jarrera neutroa hartzen duela etorkizunaz, eta beren erantzunak tarteko balioetan kokatzen dituzte: aurreikuspenak nomalak direla adierazi dutenen multzoa gailentzen da edizioz edizio (% 54koa izan da ehuneko hori edizio honetan).

## Expectativas: valoración empresarial del semestre entrante

En cuanto a las expectativas o las previsiones para el primer semestre del 2017 vuelve a predominar la visión pesimista. Se observa que al preguntar por las expectativas de cara al futuro incide directamente la estacionalidad. Tal y como se puede observar gráficamente, las expectativas para el primer semestre del año suelen ser más negativas que las expectativas para el segundo semestre del año.

En esta quinta edición del panel de las artes e industrias culturales se han recogido las respuestas más negativas de cara al futuro. Aunque también ha habido ediciones donde ha predominado la visión pesimista, en la presente edición se obtiene el saldo más negativo de todas las ediciones del panel de las artes e industrias culturales: -12 puntos. El porcentaje de empresas con expectativas positivas ha sido el más bajo de todas las ediciones (17 %) y desde la pasada edición aumenta el porcentaje de empresas con expectativas negativas (29 %).

Excepto en el sector de las empresas Audiovisuales y Artes visuales, en las demás predomina el porcentaje de empresas con visión negativa cara al semestre siguiente. El sector con saldo más negativo es el sector de las Música (con un saldo de -32 puntos).

De todos modos, en cuanto a este indicador cabe destacar que la mayoría de las empresas se posiciona de una manera neutral y responden con valores intermedios: en todas las ediciones prevalece el porcentaje de empresas que responden que las expectativas de cara al semestre que viene son normales (en esta edición este porcentaje ha sido del 54 %).






**Aurreikuspenen balantzea – Balance de expectativas: I/2017**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 8,3 | 33,3 | 40,0 | 11,8 | 10,5 | **16,9** |
| Normala/Normal (%) | 58,3 | 50,0 | 20,0 | 70,6 | 47,4 | **53,8** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 33,3 | 16,7 | 40,0 | 17,6 | 42,1 | **29,2** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | -25,0 | 16,7 | 0,0 | -5,9 | -31,6 | **-12,3** |
| *Saldoa/Saldo I/2017* | *38,5* | *45,5* | *-20,0* | *33,3* | *15,8* | ***27,3*** |
| *Saldoa/Saldo I/2016* | *-23,1* | *-16,7* | *16,7* | *-5,6* | *-15,8* | ***-11,8*** |
| *Saldoa /Saldo II/2015* | *-15,4* | *36,4* | *0,0* | *-5,9* | *-15,0* | ***-3,1*** |
| *Saldoa /Saldo I/2015* | *0,0* | *30,8* | *0,0* | *-11,1* | *-35,0* | ***-7,1*** |

Ikuspegi ezkor hori negozioan eragiten duten aldagai ezberdinen balorazioan islatzen da. Aurreko edizioko balorazioekin alderatuta, aldagai ezberdinak igo egin direla diotenen ehunekoak baxuagoak dira panelaren azken edizio honetan.

EAE mailako salmentak jaistea aurreikusten dute enpresen ia erdiek (% 47). Aldagai honi dagokionean orain arteko ehunekorik altuena da hori; eta badirudi faktore hori dela aurreikuspena hain ezkorra izatearen arduradun nagusi.

Salmentak murriztea espero arren, 10etik ia 8 enpresa dira enplegua mantendu egingo dela aurreikusten dutenak.

Kostuei dagokienean berriz, kostuak igoko direla adierazi duten enpresen ehunekoa inoiz lortu den ehunekorik altuena da (% 22).

Esta visión pesimista se refleja en los indicadores que inciden en la marcha del negocio. Comparando con las valoraciones de la pasada edición, disminuyen los porcentajes de los que han respondido que aumentan los distintos indicadores.

Casi la mitad de las empresas prevé una disminución en las ventas a nivel de la CAE (47 %). Es la mayor proporción obtenida para esta modalidad de respuesta en las distintas ediciones del panel; parece ser que este factor está ligado con las expectativas negativas mostradas de cara al futuro.

Aunque se espera que disminuyan las ventas, 8 de cada 10 empresas han indicado que el empleo tenderá a mantenerse.

En cuanto a los costes, el porcentaje de empresas que han indicado un aumento de los mismos es el más elevado de todas las ediciones del panel (22 %).


Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores
EAE mailako salmentak/ Ventas a nivel de la CAV
I/2015 18,6 50,0 31,4
II/2015 29,2 47,7 23,1
I/2016 15,6 43,8 40,6
II/2016 30,6 37,1 32,3
I/2017 15,0 38,3 46,7
Estatu gainerako salmentak/ Ventas al resto del Estado
I/2015 13,3 60,0 26,7
II/2015 24,4 41,5 34,2
I/2016 25,7 45,7 28,6
II/2016 17,6 47,1 35,3
I/2017 13,3 56,7 30,0
Salmentak atzerrian/ Ventas al extranjero
I/2015 12,5 59,4 28,1
II/2015 37,5 41,7 20,8
I/2016 17,7 52,9 29,4
II/2016 20,0 46,7 33,3
I/2017 12,5 50,0 37,5
Enplegua/Empleo
I/2015 4,3 87,1 8,6
II/2015 13,6 75,8 10,6
I/2016 8,1 72,6 19,4
II/2016 14,5 64,5 21,0
I/2017 8,3 77,1 14,6
Kostuak/Costes
I/2015 20,0 70,0 10,0
II/2015 17,5 76,2 6,4
I/2016 14,1 76,6 9,4
II/2016 15,9 65,1 19,0
I/2017 21,6 62,7 15,7
0% 20% 40% 60% 80% 100%
Igo egin da/Ha aumentado
Mantendu egin da/Se ha mantenido
Jaitsi egin da/Ha disminuido

## Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

EAEko Arte eta Kultura Industrien 2017ko lehen seihilekoko Enpresa Konfiantza Adierazlea -2,6 puntukoa da. Panelaren aurreko edizioan adierazle honek lehen aldiz balio positiboa hartzen bazuen ere, berriz ere Enpresa Konfiantza Adierazleak balio negatiboa izan du Arte eta Kultura Industrien panelean.

Datorren seihilekoarekiko aurreikuspen negatiboak ondorio zuzena du berriz ere EKA balioa negatiboa izatean.

EKA indizearen jaitsierak zuzenean eragiten dio Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatuaren jaitsierari: honela EKAA balioa berriz ere 100 punturen ingurukoa izatera bueltatu da 2017ko lehen seihilekoan: 100,9 puntu, zehazki. Adierazle honek EKA-k izan duena bilakaera adierazten digu: bi seihilekotako EKA zenbat eta berdinagoa izan, EKAAren balioa orduan eta gertuago dago 100etik. Beraz, esan daiteke paneleko lehen ediziotik EKA adierazleak ez duela aldaketa handirik izan oraingo honetan.

Sektore ezberdinetan EKA balio negatiboak gailendu dira. Aurreikuspen saldoarekin bezala, EKA balioaren kasuan ere Musika sektoreak lortu du emaitzarik negatiboena (-24 puntu). Ikusizko arteetan eta Liburugintzan ere EKA balio negatiboak eman dira.

Ikus-entzunezkoetan EKA positiboa izan da (29 puntu), baita Arte eszenikoetan ere (9 puntu).

EKAA balioaren bilakaera aztertuta, Ikusizko Arteetan izan ezik, beste sektore guztietan jaitsi egin da EKAA indizearen balioa. Eta kasu gehienetan 100eko baliora gerturatzera egin dute, gainera.

## Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

El Indicador de Confianza Empresarial del primer semestre del 2017 de las Artes e Industrias Culturales de la CAE es de -2,6 puntos. Si bien en la edición anterior del panel se obtuvo un valor positivo para el ICE por primera vez, este indicador vuelve a valores negativos.

Las expectativas negativas o desfavorables para el primer semestre del 2017 hacen que el valor del ICE sea negativo.

El valor obtenido para el indicador ICE incide directamente en el Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA): así, este indicador vuelve a obtener un valor más cercano a los 100 puntos. Concretamente el ICEA del primer semestre del 2017 es de 100,9 puntos. Este indicador nos muestra la evolución del ICE. Cuanto más igual es el ICE en dos semestres, el ICEA está más cerca de 100. En esta edición, el ICEA apenas ha sufrido variaciones en relación a la primera edición.

En general, los valores ICE obtenidos en distintos sectores han sido negativos. Tal y como se ha visto en las previsiones para el primer semestre del 2017, el sector con ICE más bajo es el sector de la Música (-24 puntos). También es negativo el ICEA en las Artes visuales y en el sector del Libro.

El índice ICE ha sido positivo en el sector Audiovisual (29 puntos) y en el sector de las Artes escénicas (9 puntos).

Analizando la evolución del índice ICEA, excepto en el sector de las Artes visuales, en los demás sectores disminuye el valor de esta variable, volviendo a valores más cercanos a los 100 puntos.

**Enpresa Konfiantza – Confianza Empresarial: I/2017**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) – Indicador Confianza Empresarial (ICE)[1] | 9,2 | 28,8 | -10,3 | -8,8 | -23,9 | **-2,6** |
| Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) – Indicador Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) | 100,8 | 102,7 | 103,9 | 95,7 | 103,7 | **100,9** |

[1] *EKA -100 eta 100 artekoa da: balio positiboek jardueran aurrerapenak adierazten dituzte eta balio negatiboek atzerapenak.*
*El ICE varía entre -100 y 100: valores positivos indican avances, mientras que datos negativos señalan retrocesos de la actividad.*

**Enpresa Konfiantzaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial** (2015/I - 2017/I)




| Agente mota<br>Tipo de agente | 2015/I<br>EKAA/ICEA | 2015/II<br>EKAA/ICEA | 2016/I<br>EKAA/ICEA | 2016/II - II/2016<br>Egoera<br>/Situación | Aurreikuspenak<br>/Expectativas | EKA/ICE | EKAA/ICEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Antzerkia-Teatro | 89,0 | 85,1 | 108,5 | 40,0 | -20,0 | 7,8 | **97,3** |
| Dantza-Danza | 129,1 | 100,0 | 111,8 | 100,0 | -50,0 | 12,1 | **122,5** |
| Arte eszenikoak-Artes escénicas | 94,3 | 87,1 | 109,2 | 50,0 | -25,0 | 9,2 | **100,8** |
| Zinema-Cine | 70,9 | 73,4 | 89,9 | 66,7 | 33,3 | 49,4 | **100,3** |
| Dokumentala-Documental | 100,0 | 77,5 | 100,0 | 0,0 | 50,0 | 23,6 | **100,0** |
| Publizitatea-Publicidad | 81,6 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | -100,0 | -58,6 | **57,7** |
| Telebista-Televisión | 134,4 | 100,8 | 151,2 | 50,0 | 50,0 | 50,0 | **126,0** |
| Espezializatu gabeak-No especializadas | 100,0 | 96,8 | 111,8 | 50,0 | -50,0 | -6,4 | **96,8** |
| Ikus-entzunezkoak-Audiovisual | 97,5 | 87,7 | 108,0 | 41,7 | 16,7 | 28,8 | **102,6** |
| Arte-galeria-Galería de arte | 114,9 | 109,2 | 86,9 | -20,0 | 0,0 | -10,3 | **103,9** |
| Ikusizko arteak-Artes visuales | 114,9 | 109,2 | 86,9 | -20,0 | 0,0 | -10,3 | **103,9** |
| Argitaletxea-Editorial | 96,1 | 103,8 | 103,2 | 0,0 | -16,7 | -8,5 | **88,4** |
| Liburu-denda-Librería | 104,3 | 114,0 | 119,5 | -18,2 | 0,0 | -9,3 | **99,9** |
| Liburugintza-Libro | 101,5 | 110,4 | 114,0 | -11,8 | -5,9 | -8,8 | **95,7** |
| Sustatzaile pribatua-Promotor privado | 118,2 | 106,9 | 126,0 | 50,0 | 50,0 | 50,0 | **126,0** |
| Kontzertu aretoa-Sala de conciertos | 94,9 | 115,5 | 121,1 | 0,0 | -40,0 | -21,1 | **94,3** |
| Diskoetxea-Discográfica | 89,4 | 105,4 | 118,6 | 0,0 | -25,0 | -12,9 | **98,6** |
| Disko saltokia-Comercio del disco | 106,9 | 100,0 | 125,4 | -83,3 | -83,3 | -83,3 | **100,0** |
| Musika-Música | 101,2 | 106,8 | 122,3 | -15,8 | -31,6 | -23,9 | **103,7** |
| Guztira - Total | 99,9 | 100,2 | 111,8 | 7,7 | -12,3 | -2,6 | **100,9** |

**Enpresa Konfinatza Adierazle Armonizatuaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial Armonizado** (2015/II - 2017/I)



## Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreen artean, eskariaren jaitsiera da Arte eta Kultura Industrietako enpresa establezimenduetako arduradunek aipaturiko faktoreen artean gehien errepikatzen dena. 10etik 3k baino gehiagok faktore horri egotzi baitio negozioak izan duen bilakaera.

Eskariaren jaitsieraren ondoren, faktore azpimarratuena ekoizpen gastuak izan dira: zehazki enpresen % 23k adierazi du faktore hori. Eta atzetik datoz gastu fiskalak (% 14) eta finantziazio eta tesoreria arazoak (% 11).

Faktore edo alderdi nagusi horiez gain, bestelako faktore batzuk ere aipatu dituzte enpresek beraien jardueran eragin zuzena duten faktore modura. Jarraian, sektore desberdinetan aipatu direnak zerrendatzen dira:

**Arte eszenikoak:**

- Udalek antzerki programaziorako jasotzen dituzten diru-laguntzek arte eszenikoetako enpresen jardueran eragin zuzena dutela aipatzen da. Honen harira, erakunde publikoek eta horien finantziazio-sistemek arte eszenikoetako industrien jardueran duten eragina zuzenekoa dela adierazi da.
- Martxan duten jarduera motak (antzerki edo musika bira bat martxan izatea, ekoizpen lanetan aritzea…) zuzenean eragiten die enpresaren alderdi ezberdinei (arlo ekonomikoari, giza baliabideei, etab.).
- Sektorean dagoen konpetentzia.

**Ikus-entzunezkoak:**

- Jarduera oso aldakorra da urte sasoiaren arabera zein urte batetik bestera ere.
- Aktore eta artistekin lan egiten duten enpresek, beraien “book”-ean aktore edo artista jakin batzuk izateak eta horien uneko egoerak (ezaguna egin den, modakoa…) jardueran asko eragin lezakeela aipatu da.

**Ikusizko arteak:**

- Erakundeen diru-laguntzak faktore garrantzitsutzat jo dituzte sektore honetan.

## Factores limitadores de la actividad empresarial

Entre los distintos factores que inciden en la actividad empresarial, el descenso de la demanda es el factor que más señalan los responsables de las empresas de las Artes e Industrias Culturales consultadas. Esta factor es señalado por 3 de cada 10 empresas.

Después del descenso de la demanda, el siguiente factor más señalado son los costes de producción (23 %). Y le siguen los gastos fiscales (14 %) y los problemas de financiación o tesorería (11 %).

Además de estos factores principales que inciden en la marcha del negocio, las empresas también han indicado otro tipo de factores que les afectan directamente. A continuación se recogen los distintos factores indicados, por sector:

**Artes escénicas:**

- Señalan que las subvenciones que reciben los ayuntamientos para la programación teatral inciden directamente en la actividad de las empresas del sector. A este respecto, se señala que las entidades públicas y sus sistemas de financiación afectan directamente al sector.
- El tipo de actividad que estén llevando a cabo las empresas (si están de gira, si están en fase de producción…) de artes escénicas incide directamente en distintos factores (en el factor económico, en el personal, etc.).
- La competencia que hay dentro del sector.

**Audiovisuales:**

- La actividad es muy variable según la época del año; también varía mucho de un año a otro.
- En el caso de las empresas que trabajan con actores y/o artistas, incide el “book” con el que cuente la empresa en ciertos momentos (por ejemplo si un cierto actor/artista se ha puesto de moda, se ha hecho conocido…); este factor puede incidir mucho en la actividad empresarial.

**Artes visules**

- En este sector se señalan las subvenciones como factor limitador.

**Liburugintza:**

- Liburugintza kontsumitzeko moduan egon diren aldaketak aipatzen dira.
- Honen baitan liburugintza digitala aipatzen da bereziki.
- Hezkuntzari dagokionean, teknologia berrien inplementazioak hezkuntzan liburugintza alorrean eragin handia izan duela atzematen da.
- Euskarazko merkatu potentziala oso mugatua izatea.
- Urte sasoiaren eragina: Gabonak, kurtso hasiera, etab. bezalako faktoreek liburugintza enpresen jardueran duten eragina oso handia da.

**Musika:**

- Musika kontsumitzeko moduaren aldaketa: euskarri fisikoen galera…
- Musikaren doakotasuna: modu errazean musika doan eskuratzeko aukera izatea.
- Musika salmentarako konpetentzia: batez ere internet bidezko salmenta (Amazon…).
- Musika aretoei dagokienean, konpetentziak establezimendu berriak irekitzeak eragin handia duela aipatzen da.

**Libro:**

- Se señalan cambios en la manera de consumir.
- Incide directamente el libro digital.
- En cuanto a educación, la implementación de nuevas tecnologías en la educación ha afectado mucho al sector del Libro.
- Que el mercado potencial en euskera sea limitado.
- La estacionalidad: las navidades, el principio de curso, etc. son factores que afectan mucho a la actividad de las empresas del sector.

**Música:**

- Cambio en la manera de consumir la música: pérdida del soporte físico…
- Gratuidad de la música: el poder obtener de manera fácil música gratuita.
- Competencia en las ventas: sobre todo en las ventas a través de internet (Amazon…).
- En cuanto a las salas de música, se señala que incide directamente que la competencia abra un establecimiento nuevo.




**Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak – Factores que limitan la actividad empresarial II/2016**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audio-visual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburu-gintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskariaren jaitsiera/Descenso de la demanda (%) | 42,1 | 35,0 | 22,2 | 39,3 | 28,6 | **34,6** |
| Ekoizpen gastuak/Costes de producción (%) | 10,5 | 40,0 | 33,3 | 10,7 | 28,6 | **23,1** |
| Gastu fiskalak/Costes fiscales (%) | 21,1 | 5,0 | 33,3 | 7,1 | 17,9 | **14,4** |
| Finantziazio/tesoreria arazoak Insuficiente financiación/tesorería(%) | 5,3 | 5,0 | 11,1 | 14,3 | 14,3 | **10,6** |
| Bestelakoak/Otros (%) | 21,1 | 15,0 | 0,0 | 28,6 | 10,7 | **17,3** |

## Giza baliabideak

Jasotako informazioaren arabera, panela osatzen duten Arte eta Kultura Industrietako establezimenduetan guztira 616 lanpostu daude eta erdia baino gehiago dira emakumezkoak (% 52). 150 lanpostu ardura postutakoak dira, eta postu horietan emakumeen presentzia % 33ra jaisten da.

## Recursos humanos

Según la información recopilada, hay 616 puestos de trabajo en los establecimientos que conforman el panel de las Artes e Industrias Culturales, y más de la mitad son mujeres (52 %). El número de personas que ocupa cargos de responsabilidad es de 150, y el porcentaje de mujeres baja al 33 %.

**Enpresako langile kopurua - Personal de la empresa**




**Ardura postuak dituzten langile kopurua - Personal con cargos de responsabilidad**




Emakumezkoak
Gizonezkoak

**Langile kopurua guztira eta ardura postuak dituzten langile kopurua – Personal total y personal con cargos de responsabilidad II/2016**

| | | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | | kus-entzunezkoak/ Audiovisual | | Ikusizko arteak/ Artes visuales | | Liburugintza/ Libro | | Musika/ Música | | Guztira/ Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % |
| Enpresako langileak/ Personal empresa | Em./Muj. | 34,7 | 45,2 | 90,1 | 47,0 | 6,0 | 60,0 | 130,5 | 66,9 | 59,5 | 41,9 | **320,8** | **52,1** |
| | Giz./Hom. | 42,1 | 54,8 | 101,6 | 53,0 | 4,0 | 40,0 | 64,5 | 33,1 | 82,5 | 58,1 | **294,7** | **47,9** |
| | Guztira/Total | **76,8** | **100,0** | **191,7** | **100,0** | **10,0** | **100,0** | **195,0** | **100,0** | **142,0** | **100,0** | **615,5** | **100,0** |
| Ardura postuak Cargos responsables | Em./Muj. | 12,0 | 44,4 | 12,0 | 28,6 | 2,0 | 40,0 | 16,0 | 41,0 | 8,0 | 21,6 | **50,0** | **33,3** |
| | Giz./Hom. | 15,0 | 55,6 | 30,0 | 71,4 | 3,0 | 60,0 | 23,0 | 59,0 | 29,0 | 78,4 | **100,0** | **66,7** |
| | Guztira/Total | **27,0** | **100,0** | **42,0** | **100,0** | **5,0** | **100,0** | **39,0** | **100,0** | **37,0** | **100,0** | **150,0** | **100,0** |

Liburugintza da emakumezkoen proportziorik altuena duen sektorea (% 67). Musikaren sektorea berriz gizonezkoen proportziorik altuena duena (% 58).

Ardura postuei dagokienean berriz, sektore guztietan gizonezkoen proportzioa altuagoa da mota honetako lanpostuetan. Emakumezkoen proportzioa batez bestekoa baino altuagoa da ardura postuei dagokienean Arte eszenikoetan (% 44), Liburugintzan (% 41) eta Ikusizko arteetan (% 40).

Ikus-entzunezkoetan eta Musikan ardura postuetan dauden 10 pertsonatik 7-8 artean gizonezkoak dira (% 71 eta % 78, hurrenez hurren).

El sector del Libro es el sector con mayor porcentaje de mujeres (67 %). Al contrario, en el sector de la Música predomina la proporción de hombres (58 %).

En cuanto a cargos responsables, en todos los sectores hay más hombres que mujeres en estos puestos de trabajo. La proporción de mujeres es mayor que la proporción media en el sector de las Artes escénicas (44 %), en el Libro (41 %) y en las Artes visuales (40 %).

En el sector de los Audiovisuales y en la Música 7-8 de cada 10 personas en puestos con cargos responsables son hombres (71 % y 78 %, respectivamente).